



www.caf.net



PLAN ESTRATEGIKOA

2026

LEGE OHARRA

Dokumentu honek informazio-helburua du soilik.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioari edo bertan adierazitako iritzien edo aitopenen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitzak errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldeztatik aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eskusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek aldeztatik idatzizko baimena eman gabe.

AURKIBIDEA

1. ATZERABEGIRAKOA

/ Amaitu berria den Plan Estrategikoan CAF Taldearen bilakaera **azaldu eta balioa ematen** zaio.

2. CAF GAUR EGUN

/ Gaur egun CAF Taldea dena **bistaraten** da, haren ezagutza eta ulermena erraztu ahal izateko.

3. ETORKIZUNeko HELBURUAK: 2026KO PLAN ESTRATEGIKOA

/ Taldearen Plan Estrategiko Berrian jasotako ildo nagusiak **azaltzen** dira eta hurrengo urteotara begira Taldeak duen **aspirazioa zehazten** da.



/ 1

ATZERABEGIRAKOA

GURE HELBURUAK
LORPEN ESTRATEGIKOAK
EMAITZAK

/ PROPOSATU GINENA

...

2021EKO IKUSPEGIA

Gure ahalmen teknikoa eta giza ahalmena oinarri hartuta, **tren-sektorean hazi egingo gara, eta munduko merkatu zorrotzenetan dugun partaidetza finkatuko dugu.**

Gure garraio-eskaintza integrala handituko eta dibertsifikatuko dugu, eta, hala, **mugikortasun jasangarriaren** behar sozial berriei erantzungo diegu.

CAF osatzen dugun guztion kulturaren bidez, **erantzun orekatua emango diegu gure interes-taldeen beharrei.**

/ HONAKO HAUEK LORTZEKO

...

2016-2021EKO ARDATZ ESTRATEGIKOAK

- + HAZKUNDEA
- + ERRENTAGARRITASUNA
- + IRAUNKORTASUNA



**BALIOA
SORTZEA**





1.1 LORPEN ESTRATEGIKOAK



1.1 LORPEN ESTRATEGIKOAK

/ HAZKUNDEA ETA BALIO PROPOSAMENA INDARTZEA

Presentzia handiagoa European

EUROPAKO ZORROA 2016AN → EUROPAKO ZORROA 2021EAN

% 53 → % 70

Sartze eta indartze handiagoa **erreferentziatzko Europako tren-merkatuetan¹**

2016ko ZORROA¹ → 2016-2021eko KONTRATAZIOA¹
1.320 M€ → 6.641 M€

- 2017: Produkzioaren ezarpena Erresuma Batuan
- 2019: EuroMainten erosketak (tren-zerbitzuak)
- 2022: Aktibo garrantzitsuen erosketak Alstomi Frantzia eta Alemanian

Tren arloko balio-proposamena indartzea



IRTENBIDE INTEGRALEN ETA SISTEMEN ZORROA 2016 → IRTENBIDE INTEGRALEN ETA SISTEMEN ZORROA 2021EAN

289 M€ → 1.290 M€

- Proiektu integralen kaptura garrantzitsua
- Osagaien eta Sistemen gero eta ekarpen handiagoa
- Birgaitze-lanen negozioaren garapena

Eskaintza tren arloaz harago dibertsifikatzea

Erosketa:



SALMENTAK EROSKETA AURRETIK → 2021EKO SALMENTAK

458 M€ → 721 M€

Irtenbide berritzaileen garapen teknologikoa



- Zero isurpeneko ibilgailuak
- Soluzio digitalak
- Big data
- Energiaren kudeaketa eta ekodiseinua
- Seinaleztapena
- Trakzioa
- Ibilgailu autonomoa

/ Merkatu garrantzitsuetako eta aldeko aurreikuspenak dituzten merkatuetako posizionamendua

/ Eraldaketako eragiketa inorganikoen integrazioa

/ Sektoreko posizionamendu eta posizionamendu geografiko aipagarria

/ Sektoreko funtsezko joeretako posizionamendu teknologikoa

/ ERRENTAGARRITASUNA OPTIMIZATZEKO PALANKEN GARAPEN SISTEMATIKOA

MOVE eraldaketa-programa

- Lean Manufacturing-a eta Lantegi Digitala 4.0 tren arloko footprint industrial guztian
- Plataformen estandarizazioa

Tren-zerbitzuen segmentuan eragingarritasuna hobetzeko planak

Tren Digitala pixkanaka ezartzea

(Produktuan eta mantentzean izandako hobekuntzak operazioan jasotako benetako datuak oinarritzat hartuta)

Zirkulatzailaren optimizazio-plana²

ZIRKULATZAILEA 2016/12/31N → ZIRKULATZAILEA 2021/12/31N

% 19 → +% 5

/ Lehiakortasunarekin eta errentagarritasunarekin lotutako etengabeko hobekuntza-planak

/ JASANGARRITASUNAREN BALORAZIOAREN HOBEKUNTZA

ESG Equity Story argitaratzea

ESG rating-a pixkanaka hobetzea (sektoreko batezbestekoa gaingiduz)

- Low Risk Sustainability-en
- Platinoa Ecovadis-en

Atxikipena SBTi³ eta Net Zero Iniciatiben

Isurpenen murrizketa⁴

- 1 eta 2ko irismena % 10ean

Likidezia Programa abian jartzea⁵

/ CAFeko jasangarritasuneko kalifikazioa hobetzea

/ Konpromiso handiagoa

¹ Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Eskandinaviako herrialdeak.

² Zirkulatzaila garbia, salmentekiko.

³ Science Based Targets initiative.

⁴ 2021 vs 2019.

⁵ 2022ko apirilean.

1.1 LORPEN ESTRATEGIKOAK

2016



**GAITASUN INTEGRALAK
DITUEN TREN ARLOKO
FABRIKATZAILEA
IZATETIK...**

**2016-2021EKO
PLAN
ESTRATEGIKOA**

2021

**... TRENEN ETA HIRIKO AUTOBUSEN
ARLOETAN MUGIKORTASUNeko
SOLUZIOEN HORNITZAILE GISA
GURE POSIZIOA SENDOTZERA
IGARO GARA**



Negozio bat: Tren arloa

SALMENTEKIKO
%, 2016**% 100****+MUGIKORTASUNA**Bi negozio: Tren arloa
eta AutobusakSALMENTEKIKO
%, 2021TREN ARLOA
% 76AUTOBUSAK
% 24Posizionamendu
gorakorra hiriko
segmentuanHIRIKO
SALMEN
TAK,
2016¹**371 M€****+HIRIKOAK**Gaitasun diferentzialak
hiriko mugikortasunean
Solaris erosi osteanHIRIKO
SALMENTAK,
2021¹**1.460 M€**Negozio helduak eta
garapen- eta kontsolidazio-
bidean dauden beste
batzuk bateraTREN ARLOKO
ZORROAREN
ARABERAKO
%, 2016IBILGAILUAK
+
ZERBITZUAKSOLUZIO
INTEGRALAK ETA
SISTEMAK**% 95****% 5****+INTEGRALAGOAK**Sendotutako gaitasunak tren
arloko balio-katean
mugikortasuneko soluzio
integralen hornitzaile gisaTREN ARLOKO
ZORROAREN
2021
ARABERAKO %IBILGAILUAK
+
ZERBITZUAKSOLUZIO
INTEGRALAK ETA
SISTEMAK**% 85****% 15**Mundu mailako jarduera,
baina Europako eta
munduko merkatu
nagusietan eta Europako
mainline segmentuan
presentzia mugatuarekin²Neurri txikiko kontratuak
(100 M€ inguru)
Frantzia eta Alemanian
Lehen kontratu handia
Erresuma Batuan2016ko ZORROA
FRANTZIA+ALEMANIA+ERRESUMA
BATUA+ESKANDINAVIAKO
HERRIALDEAK**1.320 M€****+ MAINLINE**Mundu mailako jarduera eta
presentzia eta gaitasunak
Europako eta munduko
merkatu nagusietan eta
Europako mainline
segmentuan²Hainbat kontratazio
>500 M€ Frantzia,
Alemanian eta Erresuma
Batuan2016-2021eko KONTRATAZIOA
FRANTZIA+ALEMANIA+
ERRESUMA BATUA+
ESKANDINAVIAKO HERRIALDEAK**6.641 M€****+ FUNTSEZKO MERKATUETAN**IBILGAILUEN MAINLINE
ZORROA, 2016²**1.688 M€**IBILGAILUEN
MAINLINE
ZORROA,
2021²**3.124 M€**Zero isurpeneko soluzioen
txertatze txikiagoaOntziratutako metaketa duten tranbia-floten
hornidura, GREENTECH teknologian
oinarritutakoa³**+ JASANGARRIAK**Zero isurpeneko
soluzioen aukera
zabalaGREENTECH
teknologia
duten URBOS
tranbiak³Hiri-
autobusak
zero isurpenak
eta isurpen
baxuakBateria bidez
propultsatuta
ko trenakHidrogeno
bidez
propultsatuta
ko trenak


¹Ez ditu biltzen salmenta osagarriak, beste jarduera osagarri batzuei (zerbitzuak, seinaleztapena, EPC eta bar) lotutakoak

²Europak osatzen du munduko merkatu irisgarri handiena eta, horren baitan, mainline segmentua. Iturria: UNIFE

³Tren barruko energia-metaketa eta balaztatzearen energia-berreskuratzearen teknologia bateratzen dituen energia-optimizazioko sistema.



1.2 EMAITZAK



Emaitza sendoen bidez, konpromisoak betetzen ditugu

1.2 EMAITZAK

2016-2021EKO ARDATZ ESTRATEGIKOAK

	2016	2021	2021/2016 ald.		
HAZKUNDEA	BOOK TO BILL, BATEZBESTEKOA	← 1,3x →		/ARRAKASTA KOMERTZIALA /HAZKUNDEA (UHTK ¹ =% 17) > MERKATUA ²	
	SALMENTAK	1.318 €	2.943 €	x2,2	/HAZKUNDE ORGANIKOA ETA EZ ORGANIKOA, TREN ARLOAN ZEIN AUTOBUSEAN
	ZORROA	6.228 M€	9.640 M€	x1,5	/KALITATEZKO SEGMENTUETAKO SALMENTAK /ETORKIZUNEAN HAZTEKO OINARRIAK
ERREN-TAGARRI-TASUNA	EBIT/EBIT mj.	112M€/ % 8,5	165M€/ % 5,6	x1,5/x0,7	/ERRENTABILITATEAREN HOBEKUNTZA NORMALIZATUTAKO BALDINTZETAN, EZOHICO INGURUNeko BALDINTZEK BAKARRIK ETENDAKOA ³
	BAI/Mj. BAI	59 M€/ % 4,5	130M€/ % 4,4	x2,2/x1,0	/AKZIO BAKOITZEKO IRABAZIAREN IGOERA /AKZIODUNAREN ZAKO ORDAINSARI ERAKARGARRIA
	BPA	1,00 €	2,50 €	x2,5	/ % 44KO BATEZ BESTEKO PAY OUT-A
	DPA	0,58 €	1,00 €	x1,7	
	M&A AURREKO CASH-FLOW-A⁴	← 784 M€ →			/EROSKETA AURREKO ETA ONDORENGO SORKUNTZA SENDOA /M&A OSTEKO CASH-FLOWA, AKZIODUNARI ORDAINSARIA EMATERA ETA ZORRA GUTXITZERA BIDERATUTAKOA
	M&A OSTEKO CASH-FLOW-A⁴	← 326 € →			
	DFN/EBITDA	2,0x	1,1x	x0,6	/FINANTZA KAUDIMENA
JASANGARRITASUNA	ISURPENAK GUTXITZEKO HELBURUAK	Race to Zerora eta SBTi-ra atxikipena: 1 eta 2 irismeneko isurpenak % 10 gutxitu dira 2019. urtearekin alderatuta		/JASANGARRITASUN ETA KONPROMISO HANDIAGOA	

¹ UHTK: Urtez Urteko Hazkunde Tasa Konposatua.² Trenak: UHTK = merkatu irisgarriaren % 2,3 V erako susperraldi-egoeraren arabera 2023-2025 arte (Iturria: WRMS 2020, UNIFE) / Autobusak: UHTK = hiriko autobus jasangarrien Europako merkatuaren % 4,4 2025 arte (Iturria: Interact Analysis + CAFen aurreikuspenak).³ Honako hauetatik eratorritako inpaktuari lotuta dago: 1/ Covid-19a eta 2020-2021eko tren arloko errentagarritasunaren inflazio-igoera eta 2/ hornidura-kateko etenaldiak eta 2021eko Solarisen errentagarritasunean inflazioak izandako igoera.⁴ 2016, 2017, 2018, 2019, 2020 eta 2021 urteetako dibidenduaren ordainketa aurreko kutxa.

ONDORIOAK


2016-2021 PLAN
ESTRATEGIKOKO
LORPEN ETA
EMAITZA
NAGUSIAK

/ HAZKUNDE
SENDIA/ ERRENTABILITATEAREN
HOBEKUNTZA
NORMALIZATUTAKO
BALDINTZETAN/ ERAGIKETA
KORPORATIBO
ERALDATZAILEAK/ M&A AURREKO
ETA
ONDORENGO
KUTXAREN
SORRERA/ FINANTZA
KAUDIMENA/ AKZIODUNAREN
TASAK/ JASANGARRITASUN
HANDIAGOA/ GARAPEN
TEKNOLOGIKOA/ GAITASUNAK
INDARTZEA FUNTSEZKO
GEOGRAFIETAN/ PRODUKTUAREN ETA MERKATUAREN
POSIZIONAMENDU ESANGURATSUA
ETORKIZUNeko HAZKUNDEAK LANTZEKO


**BALIOAREN
SORRERA
SENDIA**

CAF-EKO
BALORAZIOA

AKZIOAREN BILAKAERA



CAFek Burtsan izan duen bilakaera
IBEXarekin bat zetorren Plan
Estrategikoa indarrean zegoen
bitartean eta pandemiatik sektoreak
izandako portaeraren arabera

MULTIPLO SEKTORIALA¹

CAFek dekontu handiarekin kotizatzen
du konparagarriak diren beste enpresa
batzuekin alderatuta nahiz eta
mugikortasunaren arloan eskaintza
handiagoa duen (trenak + autobusak)

GOMENDIOA¹

ANALISTEN %80K
EROSTEA
GOMENDATZEN
DU

BATEZ
BESTEKO
HELBURU
PREZIOA: **41€/**
AKZIOA

% 70 inguruko potentzialarekin
EROSTEKO gehiengoak egindako
gomendioa

/ 2 CAF GAUR EGUN

MUGIKORTASUNeko SOLUZIO INTEGRALen HORNITZAILEA
EUROPA MAILAN 1.A HIRIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAN
ABANGARDIA TEKNOLOGIKO
GLOBALA, EUROPAN POSIZIONAMENDU BIKAINAREKIN
GIZA TALDE OSO KUALIFIKATUA ETA KONPROMETITUA
FINANTZA ARLOKO KAUDIMEN ETA GAITASUN
JASANGARRIA

2022KO KOIUNTURA

CAF Taldea:



TREN ARLOA



AUTOBUSAK

GURE BEZEROEN ERREPIKAKORTASUN ETA ASEBETETZE MAILA ALTUA

**TRUST
IN MOTION**

2.1 MUGIKORTASUNeko SOLUZIO INTEGRALen HORNITZAILEA



Informazio gehiago eranskinetan

+ Salmentak -



/ TREN ARLOA

/ CAF TALDEAREN EGUNGO SOLUZIOEN GAMA ETA GAITASUNAK DIRELA ETA, SEKTOREKO LEHIAKIDE NAGUSIEN ANTZEKO POSIZIOAN DAGO

Tren-ibilgailuak

Seinaleztapena

Gaitasun integralak

Produktua	CRRC	ALSTOM	SIEMENS	HITACHI	STADLER	CAF	ŠKODA	Talgo	pesa	NEWAC
Tranbia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✓	✓
Metroa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✗	✗
Aldirikoak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✓	✓
Eskualdekoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Abiadura Handia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✓	✗	✗
Oso Abiadura Handia	✓	✓	✓	✓	✗	✓	✗	✓	✗	✗
Atoian eramandako kotxeak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✗
Ontziratutako ERTMS seinaleztapena	✗	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✗	✗	✗
Bideko seinaleztapena	✗	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✗	✗	✗
CBTC seinaleztapena	✗	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✗	✗	✗
Integrazio-ingeniaritza	✗	✓	✓	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗

✓ Erabilgarri dagoen soluzioa

✓ Soluzioa partzialki bakarrik dago erabilgarri

✓ Merkaturatze-fasean dagoen soluzioa

✓ Garapen-fasean dagoen soluzioa

✗ Soluzioa ez dago erabilgarri

TRUST IN MOTION

/ BEZEROEN ERREPIKAKORTASUN HANDIA: FIDAGARRITASUNA

2019ko kontratazioa.2022ko iraila

Tren-ibilgailuak

% 47

Zabalkuntzak

% 65

Bezero errepikakorrak

Kontratuen berritze-indizea

Zerbitzuak

>% 90

Oraingo karterak ez du jasotzen etorkizunerako aukera esleigarrietako 7.000 M€ arteko zenbatekoa

/ TREN IBILGAILUAK: BESTE JARDUERA BATZUK SORTZEN ETA AINGURATZEN DITUEN NEGOZIOA

- Birposizionamendua bolumen handiko herrialdeetan (Frantzia eta Alemania)
- Deskarbonizaziorako soluzioak merkaturatzea
- Egungo inflazio-koiunturaren inpaktua ehuneko ~1.5 puntukoa da eskarien zorroaren errentagarritasunean¹

/ ZERBITZUAK: ERRENTAGARRITASUNA ETA ERREPIKAKORTASUNA

- Kontratuen batez besteko iraupena: 14 urte
- Eskarien zorroa: 3.000 M€ inguru, O&M² sozietateetatik eratorritako 800 M€ inguruko zenbatekoa sartu gabe
- Soluzio digitalen pixkanakako aplikazioa flotetan TCO/LCC gutxitzeko

/ SOLUZIO INTEGRALAK ETA SISTEMAK: EKARPENA GERO ETA HANDIAGOAZ IZANGO DEN AURREIKUSPENA

- + 20 proiektu integral gauzatu
- ERTMS (ontziratua, bidekoa eta kontrol-zentroa) soluzioen gama osoa. CBTC garapen-prozesuan
- Aldeko aurreikuspenak flotak birgaitzeko arloan: ERTMS eta hibridazioa

¹ Nazioarteko erakunde nagusien egungo inflazio-aurreikuspenaren arabera.² Proiektu integralei lotutako Operazio eta Mantentze-lanetako sozietateak.

2.1 MUGIKORTASUNeko SOLUZIO INTEGRALen HORNITZAILEA



CAF da mugikortasuneko sistema integralen ezarpenen nazioarteko liderretako bat

PROIEKTUAREN BIZITZA ZIKLO OSOAN



ESPERIENTZIA HANDIA HAINBAT GEOGRAFIATAN

1/FINANTZAKETARIK GABEKO PROIEKTU INTEGRALAK

- Parramattako tranbia, Australia
- Sevillako metroa, Espainia
- Kaohsiungeko tranbia, Taiwan
- Antalyako tranbia, Turkia
- Mexiko Hiriko Hiriarteko Trena-Toluca, Mexiko
- Metro Express tranbia, Maurizio
- Txileko Santiagoko metroa, Txile

2/FINANTZAKETADUN PROIEKTU INTEGRALAK

- Mexikoko hiri inguruko trenak, Mexiko
- Zaragozako tranbia, Espainia
- Liejako tranbia, Belgika
- New South Wales Hiriarteko Trena, Australia
- Jerusalemgo tranbia, Israel
- Tel Aviveko tranbia, Israel
- Maryland Purple Line, Estatu Batuak

ERREFERENTEA PROIEKTUEN EGITURAKETAN ETA FINANTZAKETAN

ABIAN DAUDEN PROIEKTU BATZUK

Zehaztasunik gabe

/ MARYLAND PURPLE LINE (AEB)

- 26 LRV
- Partaidetza operazioan eta mantentze-lanetan 30 urtez

/ LIEJAKO TRANBIA (BELGIKA)

- 20 tranbia
- Seinaleztapen-sistemak
- Telekomunikazioak
- Energia
- Partaidetza sistemaren mantentzean 27 urtez

/ PURPLE LINE TEL AVIV (ISRAEL)

- 98 tranbia + beste 32 tranbiako aukera etorkizunean
- Seinaleztapena
- Energia
- Komunikazioak
- Partaidetza operazioan eta mantentzean 25 urtez

2.1 MUGIKORTASUNEKO SOLUZIO INTEGRALEN HORNITZAILEA



NEGOZIO EREDU ERAKARGARRIA BEZEROARENTZAT ETA CAF-ENTZAT

ONURAK

INTERES HANDIKO MERKATUA

/ Edozein sistematarako **soluzio globala**

/ **Azpisistema kritikoan bateragarritasuna** (seinaleztapena eta material gurgilduna, adibidez)

/ **Sistemaren arrisku txikiagoa** hornitzaileen eta azpikontratisten kopuru handi baten arteko negoziazioen sinplifikazioari esker

/ **Sartzeko barrera handiak** Teknologiaren garapena, gaitasunak eta esperientzia

/ **Lehia mugatuagoa.** Lehiakide gutxi batzuek dituzten gaitasun berberak

/ **Hazteko aurreikuspena,** bereziki hiriko segmentuan

CAF-ENTZAT ERAKARGARRIA


/ Gaitasun industrial handitu da: **bolumen handiko proiektuak**

GUZTIRA, 700 M€ INGURU¹	CAPEX	400 M€ INGURU¹	<ul style="list-style-type: none"> • Ibilgailuak • Birgaitzea • Elektrifikazioa • Seinaleztapena 	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioak • Simulagailuak • Sistemen integrazioa -EPC
	OPEX	300 M€ INGURU¹	<ul style="list-style-type: none"> • Operazioa • Mantentzea 	

/ **Kontratazio-baldintzak hobetu dira** *Standalone* proiektuen aurrean

/ Finantzaketadun proiektuetan, proiektuaren dibidenduak kasu bakoitzera egokitutako **TIREkin**

/ Negozio industrial tradizionalak **beste jarduera** batzuk bultzatzen ditu



POSIZIONAMENDU NABARMENA MUNDU MAILAN ETORKIZUNeko HAZKUNDEA LORTZEKO

2.1 MUGIKORTASUNEKO SOLUZIO INTEGRALEN HORNITZAILEA

/ **AUTOBUSA**/ **AITZINDARIAK PRODUKTU BERRIAK GARATZEN: TEKNOLOGIA, LUZERAK, BIRKARGA SISTEMAK, KONFIGURAZIOAK**

/ **25 URTE BAINO GEHIAGOKO HISTORIA**

			DAIMLER TRUCK 	TRATON 	VOLVO 				
E-MOBILITY									
HIBRIDOA	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✗	✗	✗
TROLEBUSA	✓	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✗
BATERIA	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
HIDROGENOA	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✓	✗

✓ Erabilgarri dagoen soluzioa ✓ Garapen-fasean dagoen soluzioa ✗ Soluzioa ez dago erabilgarri

/ **SOLARISEK DU ZERO ETA ISURPEN BAXUKO SOLUZIOEN GAMA OSOENA**

/ **PAREKORIK GABEKO POSIZIONAMENDUA ELEKTROMUGIKORTASUNEAN**

1.A ZERO ISURPENENKO AUTOBUSEN MERKATU-KUOTAN

- Presentzia komertziala europar herrialdeen kopuru handiengan
- Sektoreko errentagarritasun onena

EXPERIENCIA REAL ÚNICA EN ELECTROMOVILIDAD

- Soluzioen fidagarritasuna
- Esperientziaren metaketa sakona eta anitza
- Bezeroekin ezarritako harremana
- Salmenta osteko sarea ezarrita

OSO POSIZIO SENDOA ZERO ISURPENENKO TEKNOLOGIETAN (ELEKTRIKOA ETA HIDROGENOA)

- Autobus elektrikoak eta hidrogeno bidezkoak zirkulazioan 2011 eta 2016tik (hurrenez hurren)

TEKNOLOGIA KONBENTZIONALEN ABANTAILA GUZTIAK DITUGU, BAINA LEGACY NEGOZIORIK/JARDUERARIK GABE

- Ez dago jarduera industrialik barne-erreketa motorren produkzioan

/ **SOLARIS EUROPAKO LEHIAKIDEEN AURRETIK DAGO PORTFOLIOAN, BENETAKO ESPERIENTZIAN ETA MERKATU KUOTAN**

SOLARISEK IGOERA HANDIA IZAN DU CAF TALDERA GEHITU ZENETIK

2.2 1.A HIRIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAN



HIRIKO MUGIKORTASUNeko ERRONKEK HIRIKO GARRAIO PUBLIKOAREN ERABILERA BULTZATZEN DUTE

/ HIRIKO MUGIKORTASUNA ALDATZEN ARI DA

Hazkunde bizkortua hirietako mugikortasunean:

Gaur egun, biztanleen % 55 bizi dira hirietan / ~% 70 2050ean.

Isurpenak:

Hiriak dira CO2ren mundu mailako isurpenen % 70en arduradunak.

Europako CO2 isurpenen % 25 inguru datoz garraiotik.

Zirkulazioaren **pilaketek** eragin handia dute bizikalitatean eta jasangarritasunean.

/ POLITIKA PUBLIKOEk NABARMEN BABESTEN DUTE TRANTSIZIO BERDEA

Garraio publiko jasangarria eta Green Dealen erregulazioak Europarako lehentasunezko gaiak dira.

Helburuak:

- 2030erako isurpenak >% 55 gutxitzea.
- Neutraltasun klimatikoa 2050erako.

“EU’s Sustainable and Smart Mobility Strategy”

estrategiaren helburua da 2050erako garraiotik datozen isurpenen % 90 murriztea gutxienez.

“EU Clean Vehicle Directive”

arteztarauak hiriko autobus berri garbietarako gutxienezko helburuak finkatzen ditu: 2025ean % 45etik, 2030ean % 65era.

NextGen Funtsen helburua da Europan trantsizio berdea bizkortzea.

Beste geografia batzuek (AEBk, adibidez) ere klima-neutraltasuna lortu nahi dute 2050ean.

/ HIRIKO GARRAIO PUBLIKOA (METROA, TRANBIA, AUTOBUSA) FUNTSEZKO OINARRIA IZANGO DA ETORKIZUNeko EDOZEIN TESTUINGURUTAN

Auto pribatuak garraibide gisa duen indarra galduko du.

Garraio publikoa izango da mugikortasunaren etorkizuneko edozein testuingurutarako beharrezkoa izango den garraibidea.

Metroa, tranbia eta autobus berdeak izango dira zero isurpeneko garraibide kolektibo gisa etorkizuneko hiriko mugikortasunaren bitartekoak.

Aurreikuspenen arabera, 2015eko datuekin alderatuta, bidaiarien hiri-garraioa % 60 eta % 70 artean igoko da 2050erako¹.

**ORAIN ETA BETI, GARRAIO KOLEKTIBOA IZANGO DA GUTXIEN KUTSATZEN DUEN ETA ERAGINGARRIENA DEN
GARRAIOBIDEA**

¹Iturria: International Transport Forum “Policy Priorities for Decarbonising Urban Passenger Transport”.


2.2 1.A HIRIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAN



HIRI JASANGARRIAK SORTZEN

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK / OPERADOREA

	METROAK	TRANBIAK ETA LRV-AK	ZERO ETA ISURPEN BAXUKO AUTOBUSAK
SOLUZIOEN GAMA	ELEKTRIKOAK INNEO	ELEKTRIKOAK ETA URBOS BATERIADUNAK URBOS 100, URBOS 70, URBOS AXL, URBOS TT, URBOS LRV	ISURPEN BAXUAK ZERO ISURPENAK URBINO HIBRIDOA URBINO ELEKTRIKOA, URBINO HIDROGENOA, TROLEBUSA
GEOGRAFIAK	MUNDU MAILAN CAF-EKO FLOTA ZIRKULAZIOAN 5 KONTINENTEETAN		EUROPA KONTINENTALA SOLARIS FLOTA ZIRKULAZIOAN 20 HERRIALDETAN
#HIRIAK	~25 HIRI	~50 HIRI	~120 HIRI
INDARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • Malgutasuna eta moldagarritasuna • Ad-hoc soluzioak (kaxaren materiala, errodadura mota, bide-zabalera, elikadura-iturria, konposizioa, atek, barne-diseinua) 	<ul style="list-style-type: none"> • Malgutasuna eta moldagarritasuna • Muturreko tenperaturetarako diseinua • 1.a ontziratutako energia-metaketakoko GREENTECH sistemadun tranbiatan; 2010etik, > 15.000.000 km eginda 	<ul style="list-style-type: none"> • Soluzio jasangarrien gama zabala • Elektromugikortasunean liderra European 2012tik • + 1.500 autobus elektriko entregatuta eta + 1.000 zorroan 2022ko urrian • Hidrogeno bidezko + 80 autobus entregatuta, eta + 80 zorroan 2022ko urrian



**SINERGIA
TEKNOLOGIKOAK**

**GEOGRAFIA
BERRIETARAKO
HEDAPENA
ERRAZTEN DU
ETA SALMENTA
GURUTZATUKO
AUKERAK
SORTZEN DITU**

**EZ DAGO HIRIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREKIN LOTUTA HIRIEI LAGUN DIEZAIKEEN CAF
TALDEA BEZALAKO BESTE INOLAKO LEHIAKIDERIK**

2.3 ABANGOARDIA TEKNOLOGIKOA



CAF TALDEAK MUGIKORTASUNERAKO FUNTSEZKOAK DIREN BERRIKUNTZA ARLOETAN EGITEN DITU INBERTSIOAK

“ETORKIZUNeko MUGIKORTASUNA JASANGARRIA, INTERKONEKTATUA, MULTIMODALA ETA SEGURUA IZANGO DA”.

EU's Sustainable and Smart Mobility Strategy

I+G GISA ZIURTATUTAKO INBERTSIOA HIRUGARREN ZATIAN¹: ~30M€/URTEAN

SALMENTEKIKO ~% 1,5

EUROPAKO LANKIDETZA PROIEKTUAK

	HELBURUA	ESPARRUAK	LORPEN ESANGURATSUAK
DESKARBONIZAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Dieselarekiko alternatiboak diren propulzio-sistemen garapena ✓ Kontsumoen eta isurpenen murrizketa produktuen gama osoan 	BATERIADUN IBILGAILUAK	<ul style="list-style-type: none"> • CAF-I ESLEITUTAKO BATERIEN TREN-KONTRATU HANDIENA • LITIOZKO BATERIEN MODULU PROPIOA TRANBIETARAKO ETA BEMU-ETARAKO INDUSTRIALIZAZIOAN
		HIDROGENO BIDEZKO IBILGAILUAK	<ul style="list-style-type: none"> • TREN PROTOTIPOA BIDEKO PROBATAN 2022KO UZTAILETIK • 12 ETA 18 METROKO HIDROGENO BIDEZKO AUTOBUSAREN GARAPENA ETA MERKATURATZEA
		ERAGINGARRITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • FULL SIC² BIHURGAILUAREN PROTOTIPOA ZERBITZU KOMERTZIALEAN • ONTZIRATUTAKO DASEM³ INTEGRAGARRIA TRANBIETAN APLIKATUTAKO TCMS SISTEMAREN BIDEZ
AUTOMATIZAZIOA	SEGURTASUN HANDIAGOA ERAGINGARRITASUN HANDIAGOA	ATO MAINLINE	<ul style="list-style-type: none"> • ATO GARAPENAK MAINLINE SEGMENTUAN
		TRANBIA AUTONOMOIA	<ul style="list-style-type: none"> • HAUTEMATE ETA POSIZIONAMENDU SEGURUKO PROBAK ZARAGOZAN
		FUNTSEZKO TEKNOLOGIAK	<ul style="list-style-type: none"> • TAURO PROIEKTUAREN LIDERGOA: LANKIDETZA INDUSTRIALEKO PROIEKTUA GIDATZE AUTONOMOKO GIDATERAKO • POSIZIONAMENDU AURRERATUKO COMPASS SISTEMAKO LEHEN APLIKAZIOAK • TALKAK ARINTZEKO SISTEMAREN PROBAK AUTOBUSE TAN
DIGITALIZAZIOA ETA LEHIAKORTASUNA	BIZITZA ZIKLOAREN KOSTU (LCC EDO TCO) TXIKIAGOAK	SOLUZIO DIGITALAK BIKI DIGITALA	<ul style="list-style-type: none"> • LEADMIND SOLUZIO DIGITALA EZARTZEA TRENETAN • AUTOBUSE TAN eSConnect 3.0RAKO (Cloud) MIGRAZIOA • ONELINE-REN (BIDAIAIARENTZAKO INFORMAZIO SISTEMA) MERKATURATZEA • BIRTUALIZAZIOKO ESPERIENTZIA PILOTUAK



¹ Ikerketan eta garapenean 2016-2021 aldian egindako gastua (Covidaren eraginarekin). Ez ditu jasotzen oinarritzko ingeniarietako kostuak eta kontratuei lotutako xehetasunekoak.

² Silizio karburua.

³ Driver Advisory System & Energy Management (gidatzerako laguntza eta energiaren kudeatzailea).



2.4 MUNDU MAILAKOA, EUROPAN POSIZIONAMENDU ADIERAZGARRIAREKIN

TREN ARLOA:

/ EZARPEN INDUSTRIALA ESPAINIAN, FRANTZIAN, ERRESUMA BATUAN, ESTATU BATUETAN, BRASILEN ETA MEXIKON

/ MANTZENTZE LANETAKO 100 ZENTRO BAINO GEHIAGO MUNDU OSOAN ZEHAR

/ 130 PROIEKTU BAINO GEHIAGO 40 HERRIALDE TAN 27.000 M€-KO BALIOAREKIN¹

/ 4.800 TREN BAINO GEHIAGO ENTREGATUTA

/ 1.000 KOTXE BAINO GEHIAGO BIRGAITUTA

AUTOBUSAK:

/ EZARPEN INDUSTRIALA POLONIAN

/ AUTOBUSAK 32 HERRIALDE TAKO 750 HIRI BAINO GEHIAGORI SALDUTA

/ 20.000 AUTOBUS BAINO GEHIAGO OPERAZIOAN

50

HERRIALDE BAINO
GEHIAGO MUNDUAN

AZKEN URTEOTAN,
EUROPARA BIDERATU GARA
BATEZ ERE

ARRETAGUNE KOMERTZIALA

- Europak osatzen du mundu mailako tren-merkatu irisgarri handiena
- CAFek bere merkatu-kuota handitu du Europako *mainline* segmentuan
- Europa kontinentala da Solarisen merkatu tradizionala
- CAFek, EuroMaint erosi ostean, zerbitzuen presentzia handitu du Europan

LERROKATZE INDUSTRIALA

- Gaitasuna handitu du Frantzian
- Produkzio-oinarri berria Erresuma Batuan
- Ezarpen industrialia Polonian (Solaris)
- Mantentze-lanetako tailerrak Eskandinaviako herrialdeetan (EuroMaint)

¹ Histórico de proyectos ejecutados.

2.5 KUALIFIKAZIO ETA KONPROMISO HANDIKO GIZA TALDEA




KUALIFIKAZIO HANDIKO GIZA TALDEA, PROIEKTUAREKIN ETA PARTEKATUTAKO KULTURAREKIN LERROKATUA

Pertsonen lotutako politika korporatiboak definitzeari esker, **balioak hedatu eta kultura partekatua sustatu** ahal izan da




Erakundearen Osasuna bihurtu da beharrezko konpromiso maila bermatzeko ardatzetako bat



Erakundearen Osasun Indizeak balorazio positiboa izan du Covid1-9aren testuinguruan ere.


Langileriaren hazkundera orain arte negozioiek izandako bilakaerarekin lerrokatuta egon da, nazioarteko presentzia handiagoarekin



Nazioarteko egoitzetan² **% 26** **% 51**

Europan **% 75** **% 88**

Pertsonen **kualifikazioa handitu** da, jardueren eduki teknologiko handiagorekin batera



Unibertsitateko 4.500 tituludunetatik (gutxi gorabehera), 2.000 baino gehiago berrikuntzako jardueretan, eta produktua eta proiektua³ garatzeko lanetan ari diren ingeniartzako profesionalak.

¹ OHI: Organizational Health Index. Erakundearen Osasun Indizea.

² Nazioarteko egoitzak, Espainia kanpoan utzita.

³ Ez ditu barruan 2022ko abuztuan Alstomi erositako aktiboetako perimetroko 150 ingeniariak.

2.6 JASANGARRIA



JASANGARRITASUNA LEHEN MAILAKO ELEMENTU ESTRATEGIKOA DA CAF-ENTZAT

/ GRI estandarraren arabera 2021ean egindako **Materialtasunaren Azterketak** interes-taldeentzako eta negozioarako lehentasunezkoak eta esanguratsuak diren gaiak finkatzen ditu

/ Taldean hedatutako **Jasangarritasun Plana eta Jasangarritasunaren Aginte Koadroa**

/ **Jasangarritasuneko Batzordea eta foro korporatibo** espezializatuak

/ Lehen **"ESG Equity Story"**ren argitalpena

/ **Finantza arlokoa ez den Informazio osoa Kudeaketa Txostenean** sartzea

/ **ESG pertzepzioa hobetzea** kalifikazioko agentzia nagusietan

/ **SBTi eta Race to Zero** ekimenetarako atxikipena (klima-aldaketaren erronkarekiko konpromisoa)

/ CAF Taldearen **karbono-aztarnaren** lehen kalkulua 1 eta 2 irismenetarako
• 1 eta 2 irismenak. % 10 murriztea ¹

/ **Nazioen Batuen Munduko Itunarekiko** atxikipenari eustea (Hamar Printzipioekiko konpromisoa)

JARDUNBIDE EGOKIEKIKO LERROKATZE HANDIAGOA

GARDENTASUN HANDIAGOA

KONPROMISO HANDIAGOA

JASANGARRITASUNeko RATIOAK SEKTOREKO BATEZBESTEKOAREN GAINETIK

www.caf.net/es/sostenibilidad



Atxikipenak / Egiaztapenak

Ratinga




2.7 FINANTZA KAUDIMENA ETA GAITASUNA




IBILBIDE KOMERTZIAL SENDOA, MERKATUKOA BAINO HANDIAGOA DEN HAZKUNDEAREKIN¹

CAF Taldea




Zorria
(M€)

Trenak



Autobusa²



COVID-19 urtea




Zorroaren hazkunde iraunkorra

Etorkizuneko ikusgarritasun handia

Errekorreko kontratazioa 2022ko 1San

BtB>1 urtero
(Covid-19 urtean izan ezik)

Kontratazioa
/ BtB
(M€ eta x aldiz)




¹ Trena: UHTK = merkatuaren % 2,3 da irisgarria 2023-2025 arteko V formako susperraldiko testuinguruaren arabera (iturria: WRMS 2020, UNIFE) / Autobusak: UHTK = hiriko autobus jasangarrien Europako merkatuaren % 4,4 2025 arte (iturria: Interact Analysis + CAFeko aurreikuspenak).

² 2018ko urteko zifrak, baina Solaris 2018ko irailetik aurrera bateratu zen.

2.7 FINANTZA KAUDIMENA ETA GAITASUNA



SALMENTEN ETA EMAITZAREN HAZKUNDE IRAUNKORRA TRENEN ETA AUTOBUSEN ARLOETAN



Jardueraren **bi digituko**
hazkundera

Solarisen erresilientzia Covid-19 urtean. Trenen negozioak konfinamenduen eragin handiagoa jasan zuen

Azkenaldiko errentagarritasuna kanpoko faktoreen ondorioz

¹ EBITa ez dago doituta, 2019an tren arloan eta maila bateratuan izan ezik (ikus 2019ko Kudeaketa Txostena).

² 2018an, 2018ko irailetik kontsolidatutako aldiari dagozkion salmenta eta EBITa. EBITak xurgatu du CAF Taldeak Solaris erosi izanaren amortizazioa (urtean 6 M€ gutxi gorabehera).

³ Osagaien hornidura-katean izandako etenaldien eraginpean.


2.7 FINANTZA KAUDIMENA ETA GAITASUNA



KUTXAREN SORKUNTZA SENDOA KONTROLATUTAKO ZIRKULATZAILEAREN MAILEKIKO


CAF Taldea

ZIRKULATZAILEA¹ (M€ eta salmentekiko)




2022ko1S = 239 M€ (% 8,1 2021eko salmentekiko)

CASH-FLOW² (M€)




2022ko1S = -13 M€ (Cash-flowa M&A ondoren)

DFN (M€)



2022ko1S = 305 M€

DFN/EBITDA



2022ko1S = 1,3x



FINANTZA POSIZIOA EROSKETEN AURREKO MAILATAN. ZIKLO BERRIARI AURRE EGITEKO SENDOTASUNA

¹ Zirkulatzailearen maila altuak 2016an eta 2017an unitateak entregatzeari lotutako ordaintak dituzten eta abian dauden proiektuen ilararen ondorioz.

² Dibidenduak ordaindu aurretik.

2022KO KOIUNTURA

/ EMAITZEN KONTUA

**INPAKTU
KOIUNTURALA**
INGURUKO
BALDINTZAK DIRELA
ETA

/ EGOERA BALANTZEA

SENDOTASUNA
MAKRO EGOERATIK
ERATORRITAKO
ERAGINAK
BISTAKOAK IZAN
ARREN

/ + 11.000 M€ BAINO GEHIAGO
ZORROAN (2022/06/30)

IKUSGARRITASUNA
MUNDU MAILAKO
HAZKUNDE
EKONOMIKOAREKIN
LOTUTAKO
ZIURGABETASUNA
NABARIA IZAN
ARREN

2022KO KOIUNTURA

MAKRO TESTUINGURUA TALDEAREN EPE LABURRERAKO EMAITZETAN ETA GAUZATZEAN ERAGINA IZATEN ARI DA. MUGIKORTASUNeko INBERTSIOA EZ DA AHULDU.

- X Eragina izan du oraingo testuinguruak (<% 10)
- XX Eragina izan du oraingo testuinguruak (>% 10)
- ✓ Ez du oraingo testuinguruak eraginik izan

2021

2022ko 1 seihilabetekoa

	Testuingurua		
	<ul style="list-style-type: none"> • Suspertze handia, baina Covid-19aren inpaktuarekiko erabateko normaltzerik gabe • 2021eko iraila: zailtasunen hasiera hornidura-katean • 2021eko inflazio-aurreikuspenak okerragotu egin dira (hasieran, >% 2) • Energiaren garestitzea 		
	CAFeko emaitzak		
KONTRATAZIOA	3.776	✓	/ Emaidza sendoak.
SALMENTAK	2.943	X	/ Autobusen entrega txikiagoen eta entregatutako autobusen mixaren eragina.
ZORROA	9.640	✓	/ Bilakaera positiboa.
EBIT EBIT marjina	165 % 5,6	X	/ Covid-19aren inpaktua zerbitzuetan. / Solaris : bolumen txikiagoa eta entregen mixa.
DFN	278	✓	/ Bilakera positiboa . Cash-flowa +62m€.
DFN/EBITDA	1,1x	✓	/ Finantza arloko sendotasuna.

	Testuingurua		
	<ul style="list-style-type: none"> • Covid-19: Omicron bariantea eta Txinako Covid 0 politika • Errusiak Ukraina inbaditu izana. Horrek honako hauek larriagotu ditu: <ul style="list-style-type: none"> • Osagaien hornidura-katearen egoera • Energiaren kostua. • 2022ko inflazioaren testuinguruak esperotakoaren oso gaintik daude 		
	CAFek ez du gatzka eremuarekiko esposiziorik (Errusia-Ukraina), bai ordea bere <i>peer</i> zuzenekoek.		
	CAFeko emaitzak		
	2.643	✓	/ Esleipenen maila altua.
	1.530	X	/ Entregen mixa ez da horren ona. / Greba Solarisen soldata-negoiazioa dela eta inflazioaren igoeraren ondorioz. Eragin materialik ez trenen negoziotan.
	10.753	✓	/ Aurrez ikusitako pipelinearen gauzatze handia.
	66 % 4,3	XX	/ Talde mailan inflazioak izandako inpaktua : energiaren fakturaren igoera (> % 300 gutxi gorabehera), soldata- eta material-kostuen igoera. / Solaris : entregen mixaren eragina, osagaien gabeziaren eta greben ondoriozko eragingarritasun-gabezia operatiboak. / Covid-19 eragina.
	305	✓	/ Balantze kontrolatua makro testuinguruaren ondorioz zirkulatzailak igoera izan arren.
	1,3x	✓	

ORAINGO TESTUINGURUAREN INPAKTUA ALBO BATERA UTZITA, CAF TALDEAREN ERRENTAGARRITASUNAK PANDEMIA AURREKO MAILAK GAINDI LITZAZKEEN (EBIT marjina = % 6,3 2019AN)

2022KO KOIUNTURA

ARINTZE PLANA ABIAN HORNIDURA KATEKO ETENALDIEN INPAKTUA MINIMIZATZEKO

/ HORNIDURA KATEA

/ Hornidura-zailtasunak batez ere **Erdieroaleetan eta txipetan.**

/ Orain arte eragin materialik izan trenen negozioan.

/ Autobusen negozioan eragin materiala izan du.

/ Honako hauek dira Solarisen jardueran eragina izan duten **osagai nagusiak** (ez zehatz-mehatz):

- Elektronika (kontrolagailuak eta PISen zatiak¹)
- Zati elektrikoak: entxufeak, kableak, konektoreak
- Silikonazko elementuak
- Motorretarako txipak eta semieroaleak
- Baterien hozgarriak

ESTRATEGIA / ARINTZE PLANA

HORNIKUNTZA



INPAKTUA GUTXITZEA

Hustura-
arriskuaren
kontrol-zentroa

**Arriskuaren
azterketa**

Aldaketa teknikoak

Osagai
elektronikoen
hornikuntza

**Hornitzaile
alternatiboen
bilaketa**

Stocka handitzea
osagai kritikoen
kasuan

KOMERTZIALA



ENTREGA EPEAK NEGOZIATZEA ETA ZIGORRAK EKIDITEA

Etengabeko
komunikazioa
bezeroarekin

**Ezinbesteko
klausulak**
aplikatzea


¹PIS: Passenger Information System.

2022KO KOIUNTURA

ARINTZE PLANA ABIAN INFILAZIOAREN INPAKTUA MINIMIZATZEKO. DIZIPLINA KOMERTZIALA: ESTRATEGIA HAUTAKORRA

/ INFLAZIOA

/ CAF TALDEKO KOSTUEN EGITURA (2021)



ESTRATEGIA / ARINTZE PLANA

MATERIALAK ETA ENERGIA

Lehengaien prezioen **kontrol-zentroa**

Itxitako akordioetan prezioei **eustea**

Ez jartzea arriskuan lehengaien epe luzerako eskariak

Modificaciones técnicas

Estabilización de tarifas energéticas

KOMERTZIALA

Prezioak **berrikusteko edo indexatzeko klausulak** gehitzea

Kostu-igoera salmenta-preziora **bideratzearen maximizazioa**

Estrategia hautakorra esleipen berrietan

Esleitutako eta ez esleitutako kontratuei uko egitea haien errentagarritasuna minoratu delako

2022KO KOIUNTURA

ESKARIEN ZORROAREN 2/3 INGURU DAGO ESTALITA PREZIOEN IGOERAREN AURREAN

INFLAZIOA NAZIOARTEKO ERAKUNDE NAGUSIEK GAUR EGUN EGINDAKO AURREIKUSPENEN ARABERA PORTATZEN BADA ETA HORNIDURA KATEARI LOTUTAKO GAUR EGUNGO ARAZOA OKERRAGOTZEN EZ BADA:

ZORROA
2022/06/30EAN

c.1/3

ESTALDURARIK GABE

- Autobusak
- Osagaiak eta ekipoak
- Hornitzaileekin egindako negoziazio-prozesuko erosketako kontu-sailak

AUTOBUSAK



Inpaktu bizkortua (2022-2023), autobusen entreek aurrera egin, abian dauden proiektuak berri eta hornidura-kateko egungo arazoak konpondu ahala **pixkanakako hobekuntzarekin**.

Errentagarritasuna ren normalizazioa 2023an hasita

c.2/3

ESTALDURAREKIN¹

- Autobusak
- Zerbitzuak
- Rolling stock-a
- Sistema integralak
- Eta lotutako etorkizuneko aukerak

TREN ARLOA



Inpaktu txikiagoa, baina luzeagoa (2022-2024). Aurrerapen mailaren arabera sarrerak aitortzeko metodoa erabilia, gaur egun partzialki kontabilizatuta dauden kostuen etorkizuneko inpaktuak.

Errentagarritasuna ren normalizazioa 2024an hasita

GAUR EGUNGO KANPOKO BALDINTZAK MANTENTZEN BADIRA, INFLAZIOAREKIN ETA HORNIDURA KATEAREKIN LOTUTAKO INPAKTUAREN GEHIENeko PUNTURA IRITSITA EGONGO GINATEKE

¹ Babes-mekanismoak: kontratu indexatuak edo materialak eta ekipoak hornitzeko baldintzak hornitzaileekin zehaztuta.

ONDORIOAK

/ ETORKIZUNERAKO FUNTSEZKO GAITASUNAK GARATU DITUGU

/ TRENEN ETA AUTOBUSEN SEKTOREETAN ETORKIZUN HANDIENeko MERKATUETAN POSIZIONATU GARA

/ ABANGOARDIA TEKNOLOGIKOAN GAUDE, ETORKIZUNeko MUGIKORTASUNERAKO FUNTSEZKOAK DIREN ARLOETAN BERRITZEN

/ NEGOZIOAK EROSTEKO, INTEGRATZEKO ETA GARATZEKO GAITASUNA DUGULA ERAKUTSI DUGU

/ ZORRO SENDOA DUGU. HORREK KARGAK BERMATUKO DITU ETA ETORKIZUNeko HAZKUNDEA ETA ERRENTAGARRITASUNA EUTSIKO DU

/ KUALIFIKAZIO ETA KONPROMISO HANDIKO GIZA TALDEAREKIN



ETORKIZUNeko MUGIKORTASUNA ERAIKITZEKO OINARRI SENDOA


A blurred high-speed train in motion at a modern station platform. The train is dark with red and blue accents, moving from left to right. The platform has a white tiled floor with a yellow safety line. In the background, there are station signs and a security camera.

/ 3

ETORKIZUNEKO HELBURUAK

2026KO PLAN ESTRATEGIKOA

HAZKUNDE ERRENTAGARRI HISTORIARI JARRAIPENA EMATEN



3.1 IKUSPEGIA



3.1 IKUSPEGIA

RAIL ETA BUSEKO MUGIKORTASUNeko SOLUZIO INTEGRALen HORNITZAILE GISA HAZTEA, GURE PROPOSAMEN DIGITALA MAXIMIZATUZ



AKZIODUNENTZAKO ERABATEKO ITZULKINA AREAGOTUZ

3.1 IKUSPEGIA. ARRETAGUNE KOMERTZIALA



/ Komertzialki European, Ipar Amerikan eta Asia-Pazifikoan oinarrituta, errepikakortasunarekin eta eskalarekin

/ MERKATU ESTRATEGIKOEI LEHENTASUNA EMATEKO ETA ETORKIZUNeko HELBURU DEN IKUSPEGI KOMERTZIALA DEFINITZEKO ERABILITAKO FUNTSEZKO LAU DIMENTSIOAK

PANORAMA LEHIAKORRA

- Estatuko eta nazioarteko lehiakideen presentzia
- Merkatu-irekiera eta atzerriko enpresek lehiatzeko duten gaitasun
- Lehiakideen indarrak eta ahuleziak
- Balio-eskaintza eta lehiakideen posizionamendua

PRODUKTUA ETA ZERBITZUA BAT ETORTZEA

- CAFen soluzioen egungo zorroa eta merkatu irisgarriko beharren/eskariak bat etortzea
- Teknologien/produktuen garapenen lerrotatze posiblea merkatuaren lehentasun estrategikoekin
- CAFen gaitasuna egungo soluzioak merkatuaren eskaeraren arabera egokitzeko

MERKATUAREN ERAKARGARRITASUNA

- Merkatu irisgarriaren neurria
- Merkatuaren hazkunde proiektatua
- Lehiakortasuna prezioetan eta errentagarritasun mailetan
- Sektorearen heldutasuna; garatutako hornidura-katearen presentzia

IRABAZTEKO GAITASUNA

- CAF markaren indarra, posizionamendua eta merkatu-kuota helburu diren merkatuetan
- CAFen presentzia komertziala eta operatiboa funtsezko geografietan
- Sinergia posibleak CAFeko negozio-unitateen artean merkaturako sarbidea errazteko

3.1 IKUSPEGIA. **ARRETAGUNE KOMERTZIALA****CAF-EK BERE SALMENTEN % 70 INGURU METATUKO DU FUNTSEZKO MERKATUETAN**

CORE
~% 70

- Bolumen handiko eta jarduera errepikakorreko merkatu erakargarriak.
- Posizionamendu sendoa eta lotura estrategiko ona CAFen soluzio-eskaintzarekin.
- Ingeniaritzako eta erosketetako tokiko taldeak, tokioa edo eskualdekoa den produkzio-presentzia.
- Herrialdearen estrategia integral pertsonalizatu espezifiko, helburu diren merkatuetako lehentasunekin lerrokatutakoa.

TIER 2
~% 20

- Jarduera errepikakorra duten merkatu erakargarriak.
- Posizionamendu sendoa eta CAFen soluzio-eskaintzarekin lotura estrategiko ona duten merkatuak.

OPORTUNISTAK
~% 10

- TREN ARLOA: Ad-hoc aukera oso interesgarriak (estrategia orokorrarekin eta soluzioen eskaintzarekin lerrokatutakoak) banakako proiektuetan landu ahal izateko (Adibidez: proiektu integralak).
- AUTOBUSAK: Hurbilketa oportunita bolumen baxuko edo irisgarriak ez diren merkatuetan, edota elektromugikortasunerako trantsizioa sustatzen duten politikarik gabeko merkatuetan (helbururik, subsidioetan edota gobernuaren laguntzarik gabe autobus jasagarriak erosteko).

/ TREN ARLOA

5 merkatu EUROPAN + AEB-N +
ASIA PAZIFIKOAN

**/ AUTOBUSAK**

6 merkatu EUROPA KONTINENTALEAN
+ AEB-N + KANADAN



EUROPAKO GAINERAKO TOKIAK +



EUROPA KONTINENTALEKO
GAINERAKO TOKIAK +



MUNDUKO GAINERAKO TOKIAK

MUNDUKO GAINERAKO TOKIAK




**ERREPIKAKORTASUNA, ESKALA, ARRAKASTA
KOMERTZIALA**


3.1 IKUSPEGIA. **ARRETAGUNE KOMERTZIALA**

/ TREN ARLOA



3.1 IKUSPEGIA. **ARRETAGUNE KOMERTZIALA** / TREN ARLOA**TREN MERKATUAK, ESLEIPENETAN, URTEKO % 3KO HAZKUNDEA PROIEKTATZEN DU 2027 ARTE**Tren arloko Merkatu Irisgarria ESKUALDEEN¹ arabera

MENDEBALDEKO EUROPAK, IPAR AMERIKAK ETA ASIA PAZIFIKOAK JARRAITUKO DUTE MUNDUKO MERKATU IRISGARRIAREN GEHIENGOA OSATZEN

Tren arloko Merkatu Irisgarria SEGMENTUAREN¹ arabera

MATERIAL GURPILDUNEK ETA ZERBITZUEK MUNDU MAILAKO MERKATU IRISGARRIAREN % 60 BAINO GEHIAGO BILTZEN JARRAITUKO DUTE

¹ Iturria: UNIFE World Rail Market Study 2022. Mundu mailako merkatu irisgarria. Datuak mila miloi €-an daude adierazita.

3.1 IKUSPEGIA. **ARRETAGUNE KOMERTZIALA** / TREN ARLOA. CORE MERKATUAK

	SALMENTAZORROA FY21 ¹	ZORROA FY21 ¹	GAITASUN INDUST.	ORAINGO MERKATUA 2019-21 ²	AURREZ IKUSITAKO HAZKUNDEA 2025-27 ²	PRODUKTUAREN LOTURA ³	LEHIA MAILAKO PANORAMA ⁴	ONDORIOA	HELBURUA
	<%5	>%10		4.031	↑	T: eskuragarri M: ez-eskuragarri ML: abian	CAF Top #5	Duela gutxiko kontratazio adierazgarriak. Helburua handitu da Alstomi aktiboak erosi ostean. Produktuaren garapenak eta mantentze-lanetako depositu berriaren irekiera abian.	Benetako alternatiba. Helburua: tren-ibilgailuen merkatu-kuotaren Top#4a.
	%5-10	>%10		2.787	→	T: eskuragarri M: eskuragarri ML: eskuragarri	CAF Top #2	Posizionamendu ona eta produktuaren lotura. Helburua handitu da Alstomi aktiboak erosi ostean.	Helburua: Top#2a mantentzea, tren-ibilgailuen merkatu-kuota handituta.
	>%10	>%10		1.382	↓	T: eskuragarri M: eskuragarri ML: eskuragarri	CAF Top #4	Posizionamendu eta produktuaren lotura ona. Merkatuak beheranzko joera du Renferen Inbertsio Planaren ostean.	Helburua: tren-ibilgailuen merkatu-kuotaren Top#1era iristea.
	>%10	>%10		1.056	↑	T: eskuragarri M: eskuragarri ML: eskuragarri	CAF Top #3	Bolumen handiko merkatua. CAF presente eta irabazten jarraitzeko gaitasunarekin. Mantentze-lanetarako depositu berrien irekiera.	Helburua: tren-ibilgailuen merkatu-kuotaren Top#3a mantentzea, merkatuaren hazkundera lortzen lagunduta.
	%5-10	%5-10	 Zerbitzuak bakarrik	1.077	↑	T: eskuragarri	CAF Top #2	Merkatuaren hazkundera handia espero da. CAFen posizionamendu ona: duela gutxiko kontratazio adierazgarriak eta presentzia Zerbitzuetan.	Helburua: tren-ibilgailuen merkatu-kuotaren Top#2a mantentzea, merkatuaren hazkundera lortzen lagunduta.
	<%5	<%5		1.615	↑	T: eskuragarri M, ML: garapen berria eskatzen dute	CAF Top #6	Duela gutxiko kontratazio adierazgarriak. Merkatuaren aldeko aurreikuspenak LRVn, baina lehia handia da.	Helburua: tren-ibilgailuen merkatu-kuotaren Top#4a.
	<%5	<%5		901	↑	T, M, ML: garapen berria eskatzen dute	Gaur egun presentziarik gabe. Nazioarteko eta tokiko lehiakidearen nagusitasuna	Merkatuaren hazkundera handia izateko aurreikuspena. Lehia oso handia da. Produktuaren garapena eta lokalizazioa behar dira.	Helburua: merkatuko presentzia berreskuratzea.
	%5-10	%5-10		747	↑	T: eskuragarri M: ez-eskuragarri ML: eskuragarri	CAF Top #2	Neurri ertaineko merkatua, hazkundera arinarekin. Proiektu ugari gauzatu dira herrialdean.	Helburua: tren-ibilgailuen merkatu-kuotaren Top#2a mantentzea, merkatuaren hazkundera lortzen lagunduta.

< interesa > interesa


¹ Tren-negoziorekiko %

² Bidaiarien garraioari lotutako material gurgildunaren merkatu irigarria. Mila miloi €-an. Iturria: WRMS 2022, UNIFE


³ Tranbia, Metroa, Mainline

⁴ Material gurgilduneko esleipenen batez besteko kuota garraioari lotua dago 2019-21ean. Bertan prestatua.

⁵ Eskandinavia: Norvegia, Suedia, Finlandia,

3.1 IKUSPEGIA. **ARRETAGUNE KOMERTZIALA** / TREN ARLOA. PROIEKTU INTEGRALAK**CAF MERKATUA BAINO AZKARRAGO HAZIKO DA PROIEKTU INTEGRALETAN****/ PROIEKTU INTEGRALEN GUZTIZKO IRISMENA MUNDU MAILAN % 6 IGOKO DA**Proiektu integralen mundu mailako merkatuaren balioa¹**/ CAF-EK 2023-2026 ALDIAN 1.500M€ - 2.000 M€ ARTEAN KONTRATATZEKO HELBURUA DU**

Hazkunde handia salmentetan 1,500 M€ (2022ko 1. S) inguruko zorroaren exekuzioari esker, 70 aukera identifikatuta 2030 arte mundu osoan (geografia zehatz batean kontzentratuta ez daudenak), eta % 30eko arrakasta-tasa.



¹ Iturria: UNIFE; CAF; BCG. Balioa mila miloi €-an dago adierazita.


² Azpiegitura, material gurgilduna eta seinaleztapena

3.1 IKUSPEGIA. **ARRETAGUNE KOMERTZIALA**

/ **AUTOBUSAK**

CAF-EK HELBURU HAUEK DITU: ZERO ISURPENENKO HIRIKO SEGMENTUKO MUGIKORTASUNEAN EUROPA MAILAKO LIDERGOARI EUSTEA, PORTFOLIOA EUROPAKO HIRIARTEKO SEGMENTURA ZABALTZEA ETA IPAR AMERIKAN SARTZEA ETA IPAR AMERIKAN ZERO ISURPENENKO BALIO-PROPOSAMEN ESKLUSIBOAREKIN SARTZEA



3.1 IKUSPEGIA. **ARRETAGUNE KOMERTZIALA** / AUTOBUSAK. EUROPA (HIRIKOA)**EUROPAKO ZERO ISURPENEN HIRIKO AUTOBUSEN LIDERGO POSIZIOA SENDOTZEA**Europa Kontinentaleko Hiriko Merkatua (milaka unitatetan) ¹**EUROPAK BIZKORTU EGIN DU ENERGIA TRANTSIZIOA**

- Merkatua hazi da COVID-19aren inpaktutik suspertu eta lehendik zegoen flota ordezkatzeko beharraren ondoren.
- **Babes handia autobus elektrikoari** EBn politiken bidez
- **Zero isurpen garbien helburuak 2050erako.**
- EBko herrialde batzuek hiriko autobus elektrikoen >50 matrikulazio berri dituzte (Herbehereak, Eskandinaviako herrialdeak, adibidez).

Europa Kontinentaleko Hiriko Merkatua 2021ean (milaka unitatetan) ¹

Helburua: zero isurpen

SOLARISEK ENERGIA TRANTSIZIOA ZUZENTZEN JARRAITUKO DU CORE MERKATUETAN

- Frogatutako lidergo-posizioa eta historia oinarritzat hartuta, Solarisek eskaintza teknologikoa eta bezeroekiko harremana zuzentzen jarraituko du helburu hauekin:
 - Lidergo-posizioari eustea Alemanian, Italian, Espainian eta Polonian.
 - Potentzial handia eta Solaris/CAF eskaintzan posizionamendu ona duten merkatuetan kuota adierazgarriak lortzea: Frantzia, Eskandinaviako herrialdeak eta Beneluxekoak.
- Europako eragile kontsolidatuen artean zero isurpeneko trantsizioan lehenengoa izatea.

¹ Iturria: Wim Chatrou Annual Report 2021. Europa kontinentalean erregistratutako ibilgailuak (Erresuma Batua eta Irlanda kanpoan). CAFen proiektioak.

² Eskandinaviako herrialdeak: Norvegia, Suedia, Finlandia eta Danimarka

³ Benelux: Belgica, Países Bajos, Luxemburgo

3.1 IKUSPEGIA. ARRETAGUNE KOMERTZIALA / AUTOBUSAK. HIRIARTEKO EUROPA




PORTFOLIOA ZERO ISURPENEN HIRIARTEKO SEGMENTURA ZABALTZEA EUROPA KONTINENTALEAN

/ MERKATUA

MERKATUA HAZTEN, HIRIKOAREKIN BATERA, HERRIALDE KOPURU TXIKI BATEAN PILATUTA

- Urtean ~8.000 autobuseko merkatua (hiriko segmentuari lotua)
- Zero isurpenetarako trantsizioa beranduago iritsi da produktuaren eta autonomiaren eskakizunak direla eta.
- EVren sarrera baxua dela eta, hiriko segmentua baino estandarizatuago dago produktu hori.
- Errentagarritasuna ~ hiriko segmentua.
- 2 enpresek biltzen dute merkatuaren ~% 80:



NEURRI HANDIAGOKO BEZEROAK (GEHIENETAN, OPERADORE PRIBATUAK)

Bezeroaren profila | Flota handiak dituzten Estatuko operadore pribatuen eta operadore multinazionalen nagusitasun handiagoa.

Adibideak



/ AUKERA

ZERO ISURPENEN LIDERGO POSIZIONAMENDUA EUROPAKO HIRIARTEKO SEGMENTURA HEDATZEA

- Solaris hiriarteko merkatuan dago 12m Diesel produktuarekin eta 15m Elektroarekin.
- Elektromugikortasuneko lidergoa hiriko segmentuan kapitalizatzeko aukera: >2.500 autobus elektriko eta hidrogeno bidezko kontratatuta. Gehienak operazioan.
- Hirikoarekiko produktu sinergetikoa, trakzio komuneko teknologia eta baterien garapen bateragarria.
- Bezeroen sinergiak eta salmenta osteko sarea, sarrera bizkortua erraztuz.
- Merkatuaren kontzentrazio handia Alemanian, Frantzian eta Italian. Horietan:
 - Solaris da liderra elektromugikortasunean eta posizionamendu egonkorra du.
 - CAF Taldeak bere presentzia sendotu du eta erreferentziakoa playerra da.
- Tren-harremana operadore pribatuekin. Trenak honako hauei hanitzen dizkiegu: Arriva, Keolis eta Transdev.

/ HELBURUA

EUROPAN ZERO ISURPENEN HIRIARTEKO AUTOBUSE TAN TOP #3A LORTZEA

- 2023 12 eta 18 m-ko hiriarteko autobus elektrikoaren plataforma garatzea, Solarisek hiriko EVetan duen indar teknologikoa aprobetxatuta.
- 2024 Solaris eta/edo CAF Taldearen corea dagoeneko presente dagoen herrialdeetan sarrerari eta garapenari lehentasuna ematea.
- 2024-2026 Top#3 merkatu-kuota lortzea, urtean 150 autobus baino gehiagorekin.

¹ Iturria: Wim Chatrou Annual Report 2021. Europa kontinentalean erregistratutako ibilgailuak. CAFen eta BCGren proiektzioak.

3.1 IKUSPEGIA. ARRETAGUNE KOMERTZIALA / AUTOBUSAK. AEB (HIRIKOA)



ZERO ISURPENeko BALIO PRPOSAMEN ESKLUSIBOAREKIN IPAR AMERIKAN SARTZEA


/ MERKATUA¹

MERKATU EGONKORRA ETA BALIO ERANTSI HANDIKOA, ZERO ISURPENeko AUTOBUSEN SARRERA TXIKIAREKIN, BAINA 2030 ARTE HAZTEKO BI DIGITUKO AURREIKUSPENAREKIN

- Merkatua: ~7.000 autobus/urtean AEBn eta Kanadan
- AEB "Buy America"ri atxikita
- Europarekin alderatuta, zero isurpenerako trantsizioa berantiarragoa
- Merkatu kontzentratua, baina errentagarritasun handikoa
- 3 enpresek biltzen dute zero isurpeneko merkatuaren ~% 80:




- Lehiakideen oraingo egoerak (operazioak / harreman geopolitikoak) sarrera berrietarako aukera irekitzen du.



ONARTUTAKO AZKEN LEGEDIAK ETA FUNTS FEDERALEK IRMO BABESTEN DUTE TRANTSIZIOA

Autobusak erosteko inbertsio-funtsen % 80 gobernu federaletik datoz: estatu guztiek jasoko dituzte funtsak elektrifikaziorako

Kaliforniaren kasuan, autobus-salmenta guztiek zero isurpenekoak izan beharko dute 2030erako



15 estatu memoranduma sinatu zuten elektrifikaziorako funtsak emateko: Kalifornia, Colorado, Connecticut, Hawaii, Maine, Maryland, Massachusetts, New Jersey, New York, Ipar Carolina, Oregon, Pensilvania, Rhode Island, Vermont eta Washington

/ AUKERA

HIRIKO AUTOBUS ELEKTRIKOEN IPAR AMERIKAKO MERKATUAN (AEB+KANADA) SARTZEA

- Hiriko segmentuan elektromugikortasunean aitzindari gisa duen abantaila kapitalizatzea.
- Esperientzia metatua Europan eta lidergo historikoko posizioa.
- Presentzia eta harreman komertziala AEBn eta Kanadan trenen segmentuan.
- Solarisekiko hiriko elektromugikortasuneko soluzioen bereizketa eta bereizketa teknologikoa.
- Tokiko bazkide gisa sartzeko aukera erabilitako kapitala eta arriskua gutxitzeko.

/ HELBURUA

% 10 INGURUKO KUOTA LORTZEA IPAR AMERIKAN ZERO ISURPENeko HIRI AUTOBUSETAN

- 2023 AEBn autobus elektriko espezifikoaren plataforma garatzea (tokiko araudia beteko duena).
- 2024-2025 *Footprint* industrialia ezartzea "Buy America" betetzeko eta jarduera AEBn jarduera komertziala abian jartzea.
- 2026 Autobusen lehen entregak AEBn.
- 2030 % 10 inguruko merkatu-kuota lortzea.

¹ Iturria: Calstart + CAFen eta BCGren proiektioak.

3.1 IKUSPEGIA. OPERAZIOEN ERAGINKORTASUNA



✓ **Eraginkorra produkzioan, ingeniaritzan eta erosketetan, oraingo footprinta gaitasun industrial berriekin osatuta. Horrek guztiak, kostuen eragingarritasunak jasotzeaz gain, arretagune komertzialari laguntzen dio.**

Eraginkortasuneko programen aplikazioa lehiakortasuna indartzen duten jarduera guztietan.



3.1 IKUSPEGIA. OPERAZIOEN ERAGINKORTASUNA



